

## Zu bai Zu Talentu Lehiaketako finala bagilaren 12an Igorren

12. orrialdea

## Maratoi Txikia bagilaren 5ean

Arratiako eskoletako guraso alkarteak antolatuta, hilaren 5ean Arratiako XXXVII. Maratoi Txikia izango da. Nagusiak Zeanuri eta Igorre arteko 11 km.ak egingo ditue Zeanuritik 10:15ean urtenda. Gaztekoak Arteatik urtengo dira 10:30ean, umeak Dimatik 10:00etan, eta txikerrenak Igorreko eskoletan zirkuitua egingo dabe 10:00etan. **11. orrialdea**



## Urrezko Aizkolari Banakako Txapelketea Atutxarentzat

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 253

2016ko bagilaren 1a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

# Igorreko jaiakaz hasiko da Arratiako jaien maratonia

Txupina bagilaren 10ean, barikuz, bota, eta jaiak hilaren 19an, domekaz amaituko dira. Tartean, astegoen bi eta astebete gorputza astinduteko.

**B**ariku eta zapatuetako gauetan kontzertuak eta erromeriak animauko dabe giroa. Lehenengo astean, Stai Zitto, Los zopilotes chirriao, Uckaia, Sarkor eta Zirkinik bez egongo dira; bigarrean, The J.F.'s, Los Cosméticos, Vinagre de Moderna, The Jeloskors, Habeas Corpus, Akerbeltz, Joxe Replay, Oxabi eta Jokaldi.

Egunez be egongo da jantzan egiteko aukerea, estilo diferenteetan gainera: Larrain jantza, jantza afrikarrak, umeentzako jantzal-

dia, euskal jantzak... bakotzak bere modura egin ahal izateko.

Kuadrilen arteko olinpiadak, lehiaketa gastronomikoak eta kirol eskeintza zabalak osotuten dabe jai egitaraua, beste gauza batzuen artean. Kirolari jagokonean, umeen triatloia, mendi ibilaldiak, nesken Futbol 7 Torneoa, Gazteen bizikleta karrera, Zumba eta eskaladea egongo dira. Antzerkia, musika emonaldiak eta beste ekintza kulturalak be ez dira faltauko Igorreko jaietan. **5. orrialdea**



Igorreko kuadrilak.

Argazkia: Igorreko Jai Batzordea.

## ZEANURI

### Metodologia barria Zulaibar Ikastegian



Zulaibar Lanbide Ikastegiak, 2016-2017 ikasturtean, Etekin Handiko Zikloak (Ethazi) izeneko metodologia ezarriko dau instalazio elektriko eta automatikoetako erdi zikloan. Erronka eta talde lanean oinarritzen da metodologia hau, eta orain arteko irakaskuntza egitura guztiz aldatuko dau, ikaslea bere ikaskuntza prozesuko protagonista eginaz.

Hurrengo ikasturtean ziklo bakar baten ezarri arren, apurka-apurka metodologia hau sartzean joango dirala dino Iraide Senarriaga Zulaibarreko Ethaziko koordinatzaileak. **7. orrialdea**

## ZEBERIO

### Alkateak soldatea jasoko dau

Zeberioko alkatearen soldatearentzako diru partidea jasoten dabe aprilean onartutako 2016ko aurrekontuak. Hori dala eta, alkateak lanaldi osoa egingo dau karguan. "Gure herriak merezi dau, herritarrak hartzeako eta honek daukiezan arazoak konpontuteko lanean egun guztietan udaletxean egongo dan alkatea izatea" dino Karlos Idirin alkateak. Horretarako Udalak 61.000 euro zuzenduko ditu. EH Bilduren ustez, hau diru lar da Zeberioko aurrekontuak kontuan izanda. **7. orrialdea**

ZAZPI HAIZETARA GORA IGORREKO JAIK!!!  
ELIKADURAN BE BURUJABEAK!  
Agirre Lehendakaria 11

Euskal Ekoizleen Aldeko Ekimena

## LEMOA

### Lemoatxeko batailearen argazkiak

Maiatzaren 21ean, Memoria Historikoa landuten daben Estadu osoko hainbat alkartek 1937ko giroa ekarri eben Lemoara. Goizetik herrian sasoi haretako ospitalea, errepublikarren aginte postua, erreketen miliziak eta abar ikusteko aukerea egon zan. Arrastian, barriz, 1937ko bagilaren 2 eta 3ko batailearen errekreazioa egin eben Lemoatxen. Bertan egon ezin izan ziranentzat, egun haretako giroa argazkietan jaso eta erdiko orrialdeetara dakar BEGITUK. **8. eta 9. orrialdeak**

FRUTERIA BEATRIZ  
FRUTEA PREZIORIK ONENEAN!  
ASTEKO ESKEINTZA  
EGUNERO ESKEINTZA BEREZIAK!

Letxuga bi	0,99€
Nektarinak (lehen mailakoak)	0,99€
Melokotoiak (lehen mailakoak)	0,99€
Meloia	0,89€
Sandia	0,89€
Sagarrak	0,79€

Lehendakari Agirre 31 Bis (Igorre) Telefonoa: 94 673 64 51



## ZEURE BERBEA

### Gora ligoteo sanoa

Igorreko jaiak heltzeaz dagoz eta gogo handia izan arren, aitortu behar dot kezka eta bildur puntu bat be badaukadala. Nire ustez jaiak dira lagunakaz patxadaz egoteko, herriko jentea ezetuteko, jantzan egiteko, ondo pasetako... Ha-ta guzti be, zoritxarrez, Igorren beti ez dago giro sanoa eta emoten dau jaietan danak balio dauala. Gainera, bardintasuna biziteko diskurso politikoki zuzena oso bameratuta daukagu baina praktikak, askotan, ez datoz bat diskursoagaz. Adibide asko ipini neikez baina aholkuetan zentzutea gurago dot.

Ingalaterrako "hau ez da konbite bat ni bortxatzeko" ekimenaren eraso sexistak ekiditeko aholkuaz baliatuko naz: ez mozkortuarazo neska bateri gero errezago eraso egiteko; ez ipini droga andrazkoen edarrietan; neska bat kaletik doanean itxi bakean; txosnetan neska

baten espazio bitala ez inbadidu berak ez badau gura; alkohola edanda ez bazara kontroletan, ez edan; adi! lotan edo konorte barrik dagoan neska bategaz txortan egiten badozu bortxaketea da; "ezetz" a jasoten dozunean ez in-sistidu; ligetan zagozanean neska bategaz berak ez badau jarraitu gura, gelditu zaitez; etxera joatean neska laguna ez badoa zugaz, ez haserretu, itxi bakean whatsapp eta kontrola, eta, bukatzeko, gogoratu jaietan danak ez dauala balio!

Ikusi dozuenez, aholkuak zuzenduta dagoz erasotzaile potentzialai eta ez neskai, gehienbat, kokoteraino nagoalako ardura beti gudan ipintez. Hori dala eta, goazen danok gozatzeraz, jantzan egitera eta zergaitik ez sexuaz gozatzeraz gura dogunagaz, gura dogun beste bider eta gura dogun moduan, hori bai, beti be beste personeak edo personak gura bada-be (Noski!). Gora ligoteo sanoa!

PILI ÁLVAREZ MOLÉS

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Sarats



Gaurko honetan lorategietan eta erreka-bazterretan sari ikusten dogun arbola dakargu: saratsa (sarétza, agoskatuta). Batuaz, sahas esaten da. Gure inguruko leku-izen batzuetan (Artean: Sarasola auzoa; Igorren: Saratsu baserria) eta euskal abizenetan (Saraxaga, Sarasketa, Sarazibar...) gordeta gelditu da. Sarats berbeak beste berba honeek be baditu Arratian: sagatz (Lemoan jasoa), katu-katu, katu-maila eta katu-eskilara (katuen eta saratsen, hau da, sorginen arbolaren artean dagoan lotura magikotik datozenak).

## ERETXIA

### Gero eta bertokoago, Arratiago!

G arala sinistea; guztiok batera norabide berbera hartzea; pentsau eta gura dogunagaz koherenteak izatea... Honeek eta beste batzuk izan dira parte hartzean nabilen Errotako lan taldean partekatu doguzan hausnarketak. Arratiako garapen sozio-ekonomikorako Errota ekimena esperientzia aberasgarri eta, zalantza barik, ilusionagarria da, gure eskualdearen alde lan egiteko aukerea emoten deusku eta.

Zer-zelako Arratia gura dogun lan taldean itaunduta, berba asko etorri jakuz burura: euskalduna; bizigarria; parte-hartzailea; solidarioa; ondare natural zein kulturala jagoten dakiena; jasangarria; bertonek behar egiteko aukerea eskeintzen dauana... Berba honeek guztiak eta beste askok osatuten dabe aurrez aurre daukagun erronea: Arratia eskualde opatsua egitea guretzat eta atzetik datozen belaunaldientzat. Baina gura dogun Arratia ez da izango bertonek bizi garanak egin daikigula sinisten ez badogu.

Urtetan, eredu kapitalistak buruan sartu deuskuzan baloreak baztertu behar doguz gizarte justu, solidarioa eta jasangarria gura badogu. Konsumo, ekoizpen, ingurumen eta personeren arteko hartu-emonetarako eredu alternatiboak bultzatu behar doguz. Aurrean daukagun erronea (edo beharbada gatazka edo, zergaitik ez, eraso) itzela da: edo aurre egiten deusagu edo irunsi egingo gaitu.

Mundu globalizauak planteetan dauzan arazoaren aurrean (deslokalizazioa, langabezia, miseria...) bertoko konsumiduteak urtenbide jasangarriagoa, ekonomikoki onuragarria eta libreagoa sortzean dau. Izan be, Arratian konsumiduten badogu, gure ekonomia-jarduereari mesede egiten deusagu eta enplegua eta aberastasuna sortzean dogu. Modu berean,



**ESPE KALTZADA**  
Zazpi Haizetara Ekimeneko  
Sortzailea

inbersinoa; bere inbersinoa zure onurea izeneko zikloa martxan ipinten da. Azken finean, bizilagunok soka baten zati garalako kontzientzia hartu behar dogu: kontzientzia hartu eta guztiok soka horretatik tira norabide berean. Arratiar guztion artean (konsumitzaile, merkatari, enpresa eta erakundeak) sare trinkoa ehundu beharko geunke bertokoa babesteko. Gainera, ez geunke ahaztu behar bertokoa konsumidutea ez dala kontsumo arduratsu hutsa; herriari, justizia sozialari eta iraunkortasunari babes erabakigarria emotea be bada.

Arratia garatuko badogu, gure inplikazio eta koherentziaren arabera izan beharko da, berez, guztion lana da eta norberak bere harri-koskorra ekarri behar dau.

Beste askok lez, beti pentsau izan dot erronek iraultza langoak dirala, eta iraultzak, kolektiboak izan aurretik, personalak dirala. Norberagandik hasi behar da aldatzen modu kolektiboan aldatu gura dana. Aldaketak ideologikoak izaten dira eta, ezinbestez, koherentziagaz lotuak. Esakerak di-noan lez "ejenpluaren bidez predikau behar da" sinisgarritasuna euki gura badogu.

Berez, hausnarketa xume hau irakurten zabizienoi konbitea luzatu gura deusuet Arratiaren aldeko errotari bihurtu zaitezien: euskeraz biziteko ebatzia hartzean dauan errotaria; bere ondare natural eta kulturala gordetzen dauan errotaria; gure herriari bizitasun eta kolorea emoten deusien komertzio txikiak babesten dauzen errotaria; kultura ekin-tzailea bultzatu, bertoko enpresak indartu eta barriak sortu daitezcan oinarriak ipiniko dabezan instituzio-errotariak; Km 0 bultzatu eta babesten dauan errotaria...

Aukeratu behar da eta aukeraketea ekintza politikoa da: izatea ala ez izatea. Nik ez daukat eze-lango zalantzarik: izan gaitzean!

Amaitu aurretik, eta errotariak errotari, esker ona adierazo gura deusuet Errota ekimena martxan jarri daben lagunai! Dagoeneko, Arratiago gara!

**LUMATUTEN**

**ARANTZA  
ETXEBARRIA  
ITURRATE**

**Paseo etenak**

**G**aur paseoan ibili naz uriko kale nagusitik. Beti izan dot gogoko jente artean ibiltea, hau eta bestea galapan nora doazen imajinetea, urliak eta sendiak zer pentsetan daben asmatutea, nire parean doazan buruan zer daben igartea. Milaka istorio sortu dodaz nik holan, gero inon idatzi ez dodazan arren.

Baina azkenaldian ez dot gogoko kale nagusitik ibiltea. Ez naz trankil joaten. Nire paseoa beti moztzen dau nonork. Loteria dala, ez-dakit-norako harpidetzea dala, inkestea dala, propagandea dala... Ez dakit zenbat bider gelditu behar izaten dodan paseoan noala. Nire ibilia etenez josita dago orain.

Eta nik, paseo eten horreetan, behin eta barriro galdetzen deusat neure buruari zergaitik ez ete jatortan inor zoriona saltzean, edo poztasuna, edo bakea. Bakea, esangura za-

balean dinot. Klean hartzean dodazan paper guztiak kontuz-kontuz gordeten dodaz, etxean irakurteko, ia nonondik agertuten jatan nik topau gura dodan horren errasturik.

Honezkerok badakit non dagozan uriko bazkaririk merkeenak, erropa eskeintzarik puntakoenak eta diru gehien erregaletan daben loteria txartelak. Zoriona, poztasuna eta bakea, osteria, ez dakit non dagozan salgai, eta kale nagusitik prisaz doan jentearen arpegira begiratuta, guztiok bardin antzean gagozala pentsetan dot.

Halanda ze, zorion-poztasun-bakerako harpidetzea non egin dakianak, jo dagiala nigana. Birtartean, nire paseo etenak egiten segiduko dot, mila eta bat istorio eregiten, bila nabilen hori tope-tako esperantza handi barik.

**ZERTZEAN****Amak zuri**

**MAITE ARRIZABALAGA**

**M**alakoak irri bihurtzen direnean  
Ilunari argia dario

Mina xamur egiten didazulako

Begirada batek dena esaten baitu

Mundua zugan murrizten da

Bizitza, zu zarelako

Ene bihotzak laztantzen zaitu

Maitasun guztia ez da aski

Amak zugatik hegan egiten duelako.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerok, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

**BEGI TXINDORRA**

**M**aiatzean, Arratiako Koruko Zuzendaritza Batzordeko kide batzuk, Caritasen egon ziran santaeskean jasotako dirua erakunde honeri emoteko. 4.500 euro izan ziran.

Dirua beti etorten da ondo eta premina egoten danean hobeto. Caritasak beharrezina daukienez preminak arintzeko erabiliko dau diru hori.

Kataniako santearen omenezko koplen bitartez jasotako dirua ondo etorriko jako Caritaseri, duda barik. Batzuei aurrera egiten lagunduteko, eta beste batzuei, gurean ondo etorria egiteko.

Eup!!



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisci.com

Zugaitik BEGITUten dogu  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

## IGORRE

# Hamar egun eta bederatzí gau, Igorreko jaiak ospatuteko

Txupina hilaren 10ean arrastiko zazpiretan botako daben arren, ordurako jaigiroan murgilduta egongo dira Igorren. Izan be, ekitaldiak bezperan hasiko dira kalejira antisexista bategaz, gogora arazoteko eraso sexista bako jaiak danon jaiak dirala. Hurrengo egunean, goizean triatloia egongo da eta arrastiko 17:00etan jaiak hasiko dira, txarangea, tailerrak eta Larrain jantzagaz.

Jai egitarauak 60 ekintzatik gora batzean dauz. Txosnagunean, Goiko plazan eta Kultur Etxearen inguruan, kontzertuak, lehiaketak, kalejirak, kirolak eta umore onak Igorre hartuko dabe bagilaren 10etik 19ra.

### Erredakzinoa

#### Bagilak 9, eguena

**19:00**etan, kalejira antisexista. Kultur Etxetik hasita.

#### Bagilak 10, barikua

**11:00**etan, eskolako umeen Inazio Zubizarreta III. Triatloia.

**17:00**etan, txosnagunetik hasita Elektrotxupina Elektrotxarangea herrian zehar eta Pankarta Lehiaketea. Pankartea eginda eroan behar da.

**17:30**etan, tailerra Zaztaparrak eskutik Goiko plazan.

**18:30**etan, Larrain jantza Goiko plazan.

**19:00**etan, txupina. Musikea, jatekoa eta txosna. Goiko plazan, baina euria bada txosnagunean.

**20:00**etan, kuadrilen arteko Olinpiadak, Grand Prix Goiko plazan. Kuadrilen argazkia.

**22:00**etan, Stai Zitto

**23:00**etan, Zu bai Zu herrikoa. Izena txosnagunean emon.

**01:00**etan, Los zopilotes txirraos taldearen kontzertua.

**03:00**etan, musikea txosnan.

#### Bagilak 11, zapatua

**09:00**etan, ibilaldia herriko ermitetik Kultur Etxeko plazatik hasita. Jubiladuen aurrean hamaiketako.

**09:00**etatik **14:00**ak arte, Nesken Futbol 7 Torneoa. Sanantonioetako V. Infantil eta Alebin torneo.

**11:00**etatik **13:30**era, zirku tailerra eta ikuskizuna umeentzat eskolatan.

Euria bada kiroldegian.

**11:00**etan, Igitieko Baserritarren Azokea.

**12:00**etan, Munduko Arrozen Txapelketea txosnagune ondoko landan. Mahaiak eta aulkiak norberak eroan. Euria bada eskolotako aterpean.

**13:15**etan, Afrika Ruge jantza afrikarrak.

**14:30**etan, arrozen aurkezpena plateran.

**16:00**etan, Bizkaiko Rugby Zazpi Kopa txosnagunean.

**19:00**etan, uger ala hegaz, Kuadrilen arteko olinpiadak. Bakotzak bere koltxonetan eroan.

**20:00**etan, TTEK Elektrotxarangea.

**20:00**etan, Abesbatzen kantaldia. Amorebieta-Etxanoko Xuxurlariak Abesbatza, Otxandioko Oihandi Abesbatza eta Igorreko Luis Iruarizaga Abesbatza Kultur Etxean.

**23:00**etan, kontzertuak. Uckaia eta Sarkor taldeak. Ondoren, erromeria Zirkinik bez taldeagaz.

#### Bagilak 12, domekea

##### Euskeraz bizi gura dot eguna

**09:00**etatik **20:00**etara, Igorre euskerearen alde V. Mile Baietz Eguna. Hasi eta amaitu Kultur Etxeko plazan.

**11:00**etan, bizikleta karrera, Gazte mailako XXXVI. San Antonio Sari Nagusia. Urtekerea eta helmuga txosnagunean.

**11:00**etan, kalejirela tistulurikaz.

**17:00**etan, *Garbara* ikuskizuna ume txikientzat txosnagunean.

**18:15**etan, Pac-Man Dantz, umeentzako jantzaldia.

**22:00**etan, Zu bai Zu Talentu Lehiaketaren finala Lasarte Aretoan.

#### Bagilak 13, astelehena

**11:00**etatik **13:30**era eta **16:30**etik **19:00**etara, puzgariak eta egurrezko jolasak eskolatan.

**12:30**etan, mezea.

**18:30**etan, danok jantzan Arantzarte eta Astrapaleagaz txosnagunean.

**19:00**etan, Futbito Txapelketaren finala.

#### Bagilak 14, martitena

**17:00**etan, umeen karaokea txosnagunean. Gero, Bokata Txapelketea.

**18:30**etan, Gobiki Kirol Klu-ak antolatuta Cross Training Kultur Etxeko plazan. Euria bada eskolotako aterpean.

**20:00**etan, Zumba txosnagunean.

#### Bagilak 15, eguaztena

**17:00**etan, Oka erraldoia herrian zehar. Kultur Etxeko plazatik hasita.

**18:00**etan, *Antxo eta Pantxa* umeentzako antzerkia txosnagunean.

**19:00**etan, Astrapalea Musika Eskolarean emonaldia txosnagunean.

**19:00**etan, Eskalada Txapelketea Goiko plazan.

#### Bagilak 16, eguena

**Mozorro eguna. Mozorrorako gaia: Txoni/ Kani**

**17:00**etan, umeen play-backa Goiko plazan. Euria egiten badau txosnagunean.

nean.

**18:00**etan, Arratiako Musika Eskolako emonaldia Lasarte Aretoan.

**18:00**etan, Nafarroa kanta taldeagaz poteoa txosnagunetik hasita.

**21:00**etan, herri afaria txosnagunean. Euria bada aterpean. Ondoren Nafarroa kantu taldea.

Txakurreo bingoa.

#### Bagilak 17, barikua

**08:00**etan, herri amozua Rugby

kors, Habeas Corpus eta Akerbeltz.

#### Bagilak 18, zapatua

**09:00**etan, ibilaldia auzorik auzo Kultur Etxeko plazatik hasita. Jubiladuen txokoaren aurrean hamaiketako.

**11:00**etatik **14:30**era, eta **17:00**etatik **19:30**era, Txu-txu trenan AMEK antolatuta. Urtekerea orduro txosnagunetik.

**16:00**etan, Jubiladuen Mus Txapelketea, jubiladuen txokoan.



tabernaren aurrean.

**17:00**etan, Tortilla eta Pintxo Lehiaketea txosnagune ondoko landetan. Mahiak eta aulkiak norberak eroan. Izen emotea 3 euro. Euria bada aterpean.

**19:00**etan, pintxoaren aurkezpena.

**19:30**etan, tortilla aurkezpena.

**19:00**etan, Undertruck Fest txosnagunetik hasita. The J.F's txosnagunean, Los Cosméticos Herrikoaren kalean, Vinagre de Moderna Kukuma eta Rugby taberna aurrean.

**23:00**etan, kontzertuak: The Jelos-

**17:00**etatik **20:00**etara, Arratiako Gurutze Gorriak antolatuta, tirolina, ule-apaindegi musikala tailerra eta puzgariak Goiko plazan.

**17:30**etan, danontzako rally umoristikoa txosnagunean hasita.

**19:00**etan, mokadutxo Goiko plazan.

**23:30**etan, kontzertuak Joxe Replay eta Oxabi.

#### Bagilak 19, domekea

**11:00**etan, kalejirela Garbetik hasita. **13:15**etan, Areatzako Banda eta korallak Kultur Etxean.

**14:45**etan, Jubiladuen bazkaria.

**16:15**etik **17:30**era, pelota jaialdia. Eskolako umetxoak; kadeteak: Xabier Ibarrondo-Markel Egaña vs Markel Basilio-Ibai Cimevilla; Profesionalak: Mikel Goñi-Pascual vs Olaizola-Otxandorena.

**19:30**etan, Jokaldi AMEK antolatuta. Bitartean, Bals Txapelketea, kuadrilen arteko olinpiaden sari banaketea, Jubiladuen Karta Txapelketako garaikurren banaketea eta jaietako errifa.

**20:00**etan, jai amaierako txokolatada. Jaien amaierera.



## ZEBERIO

**Udala landara-osasunerako produktuak apliketako ikastaro bat eskeintzeko aukerea baloretan dabil****Erredakzioa**

Landara-osasunerako produktuak apliketako ikastaroen gaineko konsulta asko egon diranez, Zerberio Udala oinarritzko mailako ikastaro bat debalde eraturteko aukerea baloretan dabil. Udala-

ren arabera, herritarren egonezina, 2015eko zemendiaren 26tik aurrera landara-osasunerako produktuak erosteko txartel bat eukitearen beharrezanetik dator. Profesionalak ez diran erabiltzaileak, toxikotasun bajuko baimendutako produktuak, eta 500gr/

ml-ko ontziak baino ezin izango dabez eskuratu. Hau da, ezin izango dabe erabilera profesionala daukien produkturik eskuratu.

Prestakuntza saioa Hazi Fundazioak emongo dau; 7 saiotan bananduko da, eta 25 ordu izango dauz guztira. Benetako eskaerea zenbatekoa dan jakiteko, interesauak udaletxean jakinarazo beharko dabe, bagilaren 6a baino lehen, izena, abizenak eta harremanetarako telefono zenbaki bat emonez. Nekazaritzan altan emonda dagozanak, izena emoten dabenean hau jakinarazo egin beharko dabe.

## IGORRE

**BATZek Araluce erosteko, beharginen soldatak % 16 murriztea ipini dauala baldintza moduan salatu dau LABek****Erredakzioa**

BATZek bere trokelgintzako negozioa handituteko asmoz Araluce enpresea erosteko interesa erakutsi ebanetik, negoziatzinoetan dagoz BATZ eta Araluceko zuzendaritzak eta langileen ordezkariak. Salerosketarako derrigorrezko baldintza moduan beharginen soldatak % 16 murriztea ipini dauala BATZek salatu dau LABek.

BATZeko zuzendaritzaegaz negoziaketa hasi zanezik, honek ez dauala negoziatuko inongo asmorik erakutsi dino LABek. "Hasikera hasikeratik, aurkeztutako proposamen bakarra lan-baldintzak okertzea izan da. Hau da, salerosketa aurrera erosteko ezinbesteko baldintza bezala ipini dau langileen soldatea eta lan baldintzak %16a murriztea. Baldintza hau inponidutako BATZek erabili dauan argudio nagusia zera izan da, desbardintasunik ez

sortzeako ezinbestekoa dala langile talde bien baldintzak parekatzea" azaldu dau sindikatuak prensa-ohar batez. Baina kolektibo bi honek ezin dirala parekatu uste dau LABek, BATZeko langileak kooperatibistak diralako eta Aralucekoak ez.

Enpresa Batzordeak, barriz, jarkerak hurreratuteko asmoz, % 9ko soldata murrizketea 2016rako eta 4 urteko epean urte bakotzeko %3ko errekeruzazioa lortzea proposatu dau.

Salerosketa honetan Arratiako lan baldintza eta enplegua bermatuko dauan akordioa heltzeako, LAB sindikatuak BATZeko zuzendaritzari exijidu gura deutso "ez dagiela laneko etorkizunagaz arduratuta dagozan langileen urrakortasuna erabili gura dabezan lan baldintzak inponidutako. Ondorioz, kooperatibako zuzendaritzeari birpentsau eta bere jarkerea aldatuteko deialdia luzatzen deusagu".

## LEMOA

**Aranzadik hiru gudariren hazurrak topau ditu Lemoan**

Lemoatx.

**Erredakzioa**

Maiatzaren 21ean, Lemoatxeko batailearen errekreazioaren ostean, Lemoak omenalditoxa eta lore eskeintzea egin eutsen Aranzadik maiatzaren 15ean topautako hiru gudariei. Gudariren hazurrak abiazinoko bonba batek Lemoatxeko mendian egindako zulo baten egozan. Hazurrak batera, euren gauza personalak be topau ditue.

Bertan behar egin daben Aranzadiko antropologo biren arabera, gazteak ziran gudariek hil ziranean, 20 eta 25 urte ingurukoak. "Hori haginakaitik dakigu" azaldu eutsan BEGIturi antropologoetako batek. Botak dituela be ikusi daiteke eta kartutxo-ugala, katea, kurutzea eta txanpon batzuk topau dabez hazurrak batera. Bat gudaria zala ziur dakie Aranzadikoak, gudariren

garriko-belarria eukan eta. Eta beste biak be gudariek izango zirala uste dabe. Edozelan be, errepublikaren aldekoak.

**Lora-eskeintza**

Metal detektore batez gudariren garrikoaren-belarria topau ebenean, persona bakar baten hazurrak egongo zirala pentsau eben Aranzadikoak. Gero beste biak topau eta txukun ipinteari ekin eutsen jentek ikusi eta lora-eskeintza egin ahal izateko.

Eguraldiak lagundu eban maiatzaren 21ean eta jentek ikusi ahal izan ebazan hiru gudariren hazurrak. Lemoatxeko batailearen errekreazioa euri mehatxupean egin zan eta euria egin ezker, indusketea tapau egin beharko zan. Ez zan holangorik gertatu; euria lora-eskeintza egin eta handik ordu erdi ingurura hasi zan eta.

## ARRATIA

**Jeltzaleak Arratiako alderdikideen eguna ospatuko dabe Diman****Erredakzioa**

Hauteskundeak egon ala ez, urtean urtean Arratiako EAJ-PNVk, topaketa egun bat antolatuten dau alderdikideak alkartu daitezcan eta euren mezu politikoa herrian zabaltzeko. Bagilaren 4an izango da aurten Diman.

Ekitaldi nagusia 12:00etan, frontoian egingo dan mitina izango da. Andoni Ortuzar EBBko presidentek eta Aitor Esteban EAJren bozeroaleak Espainiako Diputaduen Kongresuan egingo dabe berba "Lehenik Arratia" lemapean eta hilaren 26ko Espainiako Kongresu eta Senadurako hauteskundeai begira jarriko dira jeltzaleak. Egunari jaigeroa emoteko, txosnea, musikea eta umeentzako jolasak be egongo dira.

## ARRATIA

**Bizkaibusen lan-ixteak****Erredakzioa**

Akordiorik lortzean ez bada, hilaren 10era arte lan-ixteak jarraituko dabe Bizkaibusen. Maiatzaren 30etik lan-ixteak txanda bakotxean lau ordukoak dira; hau da, 07:00etatik 11:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Foru Aldundiak, gitxieneko zerbitzuak ezari

ditu ordu horreetan.

**Gitxieneko zerbitzuak**

3917 Linea: Zeanuritik Bilbora 08:45, 18:45 eta 20:45ean urtengo da. Bilbotik Zeanurira, 08:15, 10:15, 19:15 eta 20:15ean. 3927 Linea: Zeanuritik 08:15, 10:15; 18:15 eta 19:15ean. Bilbotik 09:00etan, 18:00etan eta 20:00etan. 2925 Linea: Ubidetik Bilbora 08:45, 10:45, 18:45 eta 20:45. Bilbotik Ubidera 08:45, 10:45, 18:45 eta 20:45. 3928 Linea: Zeberiotik Arigoriagara 08:05, 19:05. Arigoriagatik Zeberiora 07:35 eta 19:35ean.

## ARRATIA

**Mundua aldatuteko antolatuta zagoz?****Erredakzioa**

Atzen urteotan, eszeptizismoa alde batera itxi eta asko dira antolatu egin diranak mundua aldatuteko. Euskal Herrian betidanik tradizino ekintzailea egon da, baina atzen urteotan militantzia moduak aldatu egin dira. Aspaldi honetan, gauzak aldatuteko gogoak su emoten deutse sareai eta jentea batu

egiten da gauza konkretu baten kontra burrukan egiteko. Lehengo burrukan egiteko moduak be indartu egin dira: asko dira partidu politiko, sindikatu, Gobernuz Kanpoko Erakunde edo alkarte bateko partaide diranak.

Gaur jakin gura dogu gure irakurleen artean mundua aldatuteko zenbat ekintzaile dagozan.

Hau da gure itauna: Juxtua iruditzen ez jatzun lege edo sistema baten kontra modu aktibo eta antolatuan egiten dozu burrukan?

a) Bai. Partidu, alkarte, sindikatu edo GKE baten (edo gehiagoren) partaide naz.

b) Bai. Injustizia konkretu batzuen kontra antolatuten diran herri pla-

taformetan hartzean dot parte.

c) Burrukan egiten dot baina ez modu antolatu baten; antolatuten diran ekintzetan hartzean dot parte edo-eta sare sozialak erabilten dodaz bidebakokeriak salatuteko.

d) Ez. Ez dot sinisten nik egin ahal dodanak ezer aldatuko dauanik.

**Txofer moduan hobetu daiteke**

Gure inkesteari erantzun deustien irakurleak uste dabe arratiarrak badaukiela zer hobetu txofer moduan. Izan be, heren bik erantzun dabe kotxe asko egoten dala txarto aparkautu eta kopa batzuk hartuta gidatzen dauana be badagoala.

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendizola, s/n. 48530 LEMOA, Bizkaia  
Tel: 099 482 830 / 099 200 717

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Salbu Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
zekutzejatetxea@telefonos.com

## ZEBERIO

# Alkateak dedikazio osoa eta soldatea izango dauz aurrenekoz Zeberion



Zeberioko udaletxea.

### Erredakzioa

Zeberio 2016ko aurrekontuak apirlean onartu ziran EAJ-PNVko zinegotzien aldeko 5 boto eta EH Bilduko zinegotzien kontrako 4 botoakaz. Diru sarreretan zein gastuetan 1.340.885,57 euro aurreikusten dira aurtengorako. Diru partida barri bi dagoz aurrekontuetan, bata Bardintasun arlorako eta bestea Oinarritzko Gizarte Zerbitzua osotuteko. Baina barrikuntzarik handiena, alkateak lanaldi osoa eskeiniko deusala karguari eta soldatea kobrauko dauala izango da.

Bardintasunerako eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzua osotuteko diru partida barriak, eta kulturaren eta kirolaren sustapenerako diru partiden zenbatekoa handitu egin dala nabarmendu gura dau Karlos Idirin Zeberioko alkateak. Eta inbersinoai jagokienean, "konektibidade zerbitzuaren kalidatea hobetzeari lehentasuna emongo jakola, Saldariango auzorako bidea konponduko dala, hondakinen edukiontzimultzoak edo honeek batzeako guneak egokitu egingo dirala, Ugarte eta santa Kurtz auzoetarako ur-homidura sarea hobetu egingo dala eta Akiñao, Olatxu eta Egia auzoetan eta Gezalako bidean argiteria publikoa hobetuko dala" azpimarratu gura dau alkateak.

EH Bilduren ustez, oster, Banda Zabalen proiektua garestia da eta ez dago argi zeberioztarrak onuririk aterako daben hortik. "Gastua 98.000 eurotako izango da. Banda zabalen proiektua egoala jakin genduan EAJ-PNVk, pasa dan urteko aurrekontuetan, aldaketa bat egin ebalako. EH Bilduren galderai erantzunez, herri osora internet banda zabalen bitartez helduko zala esan euskuen, udalak gehienez 60.000 euro ordainduko ebazala, dirulaguntzak egongo zira... Orain inbersinoa askoz be handiagoa da, diru-laguntzarik ez dago, eta udal eraikinetara baino ez da

helduko" dinoe EH Bildukoak euren maiatzeko agerkarian.

### Alkatearen soldatea

Aurekontuetan desadostasuna sortu dauan beste diru partida bat alkatearen soldatearena izan da. Orain arte Zeberion ez alkateak ez zinegotziak ez dabe soldatarik kobrau. Legeak alkateak soldatea kobratzea baimendu arren, hau kobratzea ez da derrigorrezkoa eta alkateari soldatea pagetako, EH Bilduren arabera, Udalak 61.000 euro zuzendu beharko ditu: 44.000 euro alkatearen soldatarako eta 17.604 euro soldata horri jagokon Gizarte Segurantzaren pagetako. Orain arteko aurrekontuetan, barriz, alkate eta zinegotzi guztientzako dietak pagetako kantidade bat aurreikusen zan. 2015eko aurrekontuetan, 10.080 eurotako izan zan diru partida hori.

Baina alkatearen ustez, dedikazio osoa behar dau Zeberioko alkate izateak. Izan be, Zeberio 1100 biztanle inguru, 11 landagunetan eta udalerriri osoan zehar sakabanatutako ehundaka baserri daukaz. "Eta hau guztia 46 kilometro daukazan auzo-bide sare baten bidez lotuta. Holango ezaugarriak izanda, hainbat eta hainbat zerbitzu zein beharizan bete beharrean gagoz, gaur egun goak izango diranak eta modu duin baten bete beharrekoak. Eta hau udalaren eta berton gagozan ordezkariaren ardura da. Baina hau guztia ezin da behar bezala egin dedikazio osoa izan barik; gure ustez gure herriak merezi dau heritarrak hartzeako eta honeek daukiezan arazoak konponduteko lanean egun guztietan udaletxean egongo dan alkatea izatea. Arduraz eta dedikazioz egindako lan bat izan daitela, ez kanpoko beste lan batzuek partekatutako lanaldi partziala. Handiagoak diran beste herri batzuek daukiezan antzeko beharizanak daukaguz geuk be, eta hori holan, eskubide bardinak be euki behar doguz" azaldu deuto BEGURI alkateak.

EH Bilduk, EAJ-PNVk hauteskunde kanpainan honen barri ez emon izana be kritikau dau.

### Egoera finantziarioa

Egoera finantziarioari jagokonean, Zeberio mailegu bat ordaintzen dabil eta, alkatearen arabera, "20.000 euro inguru geratzen dira ordaintzeko". Bere ustez, "onbidean" eta ekonomia aldetik "saneauta" dagoan herria da Zeberio.

## ZEANURI

# Ethazi metodologia ezarriko dabe instalazino elektriko eta automatikoetako zikloan Zulaibarren

### Erredakzioa

Zulaibar Lanbide Ikastegiak, 2016-2017 ikasturtean, Etekin Handiko Zikloak (Ethazi) izeneko metodologia ezarriko dau instalazino elektriko eta automatikoetako erdi zikloan. Ziklo bategaz hasi, eta urtean urtean, beste zikloetan be metodologia hau sartzean hasteko asmoa daukiela dino Iraide Senarriaga irakasle eta Ethaziko koordinatzaileak.

Erronka eta talde lanean oinarritzen da metodologia hau, eta orain arteko irakaskuntza egiturea guztiz aldatuko dau. Izan be, orain arte, moduluak edo ikasgaiak, independenteak izan dira euren artean, modulu bakotzak bere irakasle dauka eta irakasle horrek antolatuten dau modulu. Baina metodologia barri honegaz, apurtu egiten da egitura hori. Erronka bakotxean, asignatura edo modulu bakotzeko eduki edo helburuak aldi berean landuko dira. Hau da, erronkak intermodularak dira, ikuspuntu globalagoa eta esanguratsua eskeintzen dabe, praktikoagoak dira eta lan munduagaz konektatuta dagoz. "Erronka bat adibidez egon daiteke oinarrituta, enpresa batek momentu baten,

egiten dauan bere eguneroko ekin-tzetan. Esate baterako, etxebizitza erreale baten planoak hartuta, kasu praktiko errealetan oinarrituta" azaldu deuto BEGURI Senarriagak.

### Aurkikuntza bidezko ikaskuntza

Ethaziren beste oinarria talde lana da. Alkarlaneko ikaskuntzan oinarrituta, zeharkako konpetentziak be landuten dira: komunikazioa, arazoaren konponketea eta abar. Gainera, sormena, denporearen kudeaketea eta ikaskuntza autonomoa bultzatzen dira. Holan, ikasle ikaskuntza prozesuaren protagonista izatea bilatzen da.

Baina horretarako, gelaren egitura tradizionalari be buelta emon behar jako. Izan be, egitura honetan gelan mahai indibidualak dagoz. "Ikasle

bakotxa bere mahaian dago, irakasle heltzean da azalpenak emoten ditu eta normalean klaseak izaten dira oso magistralak eta irakaslearen oinarrituta. Ethazik, protagonismoa ikasleari emongo deuto".

Irakaslearen lana be guztiz aldatuko da. Aurkikuntza bidezko ikaskuntza da eta irakasleak gida lanak egingo ditu. Erronka bakotxean jakintza desbardinak inplikata dagoz eta irakasle talde bat sortu behar da erronka bakotxerako. Irakasleak be talde lanean egin behar dabe lan, eta taldeak erronkak definitu eta programau behar ditue. Gelan aldi berean irakasle bi edo hiru egon daitekez, inplikata dagozan jakintzen edukiak emon ahal izateko.

### Enpresen eskakizunai egokituta

Metodologia hau ezarriko dabe Zulaibarren, enpresak gero eta gehiago eskatzen dabezalako talde lanean beharrean egiten jakitea, lidergoa, ebatziak hartzea edo denporearen kudeaketea lango konpetentziak. Ethazik, zeharkako konpetentzia honeen garapena eta ebalazioa dakar eta konpetentzia teknikoaren eskuratzeko maila altuagoa, koordinatzailearen arabera.



Iraide Senarriaga.

## ZEBERIO

# San Antonio jaiak Ermitabarrin



### Erredakzioa

San Antonio jaiak hasikerea emoteko bagilaren 10ean, barikuz, botako dabe txupina Ermitabarrin arrastiko seiretan. Handik aurrera, lau egunetan, hainbat ekitaldi antolatu dabez sanantonioetarako. Punk/rock jaialdia, bola jokoa eta

herri bazkaria ez dira faltauko. San Antonio egunean mezea egongo da ermitan eta ondoren barauskarria.

### Bagilak 5, domekea

09:00etan, V. ZeberioXTrem BTT martxea.

### Bagilak 10, barikua

18:00etan, txupina.  
18:30etan, pelota partiduak.  
21:00etan, sardina jana.  
22:00etan, punk/rock jaialdia. Egari, Perros Kon Asma eta Thezepo taldeak.

### Bagilak 11, zapatua

10:00etan, plater tiroa, herri mailakoa.  
13:00etan, puzgarriak eta umeentzako tailerrak.  
13:30etan, poteoa Zeberio trikitilari gazteakaz.  
14:30etan, herri bazkaria.  
16:00etan, plater tiroa. Bazki-

deak eta federatuak.

16:00etan, puzgarriak eta umeentzako tailerrak.

18:00etan, bola jokoa.

19:30etan, herri meriendea.

19:30etan, Elektro Txufla Kaleko Banda.

21:30etan, erromeria Elizagoien Ahizpak taldeagaz.

01:00etan, txokolata.

### Bagilak 12, domekea

11:30etan, umeentzako jolasak. Uratzen.

12:00etan, helduen pato lasterketa.

12:15etan, umeen pato lasterketa.

13:30etan, Mikel Barandiaran eta Julene Otegi trikitilariak.

18:30etan, mariatxiak Mariachi Amatan taldeagaz.

### Bagilak 13, astelehena

12:30etan, mezea ermitan.

13:00etan, barauskarria.

**LEMOATXEKO BATAILEA**

**1937**

Maiatzaren 21ean denporeak atzera egin eban Lemoan, 2016tik 1937ra, gerra denporara, hain zuzen be. Memoria berreskuratzeko sortutako Estaduko hamaika alkartek informazioa emon eta antzezpena egin eben goizean Arlonagusia plazan antolatutako museo bizian, eta arrastian Lemoatxeko batailearen errekreazioan. Giro guztiz ludikoan, 1937ko bagilaren 2an eta 3an Lemoatxen bizi izandakoa irudikatu ahal izan eben bertaratutakoak. Ikusi eta ikasitakoa ez ahaztuteko.

Errekreazioa amaituta, Aranzadik Lemoatxen topautako hiru gudariren hazurrak ikusteko aukerea egon zan, ha dana benetan gertatu zala gogora ekarriz.



**Bizkaifisios SLk**  
bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Ellexalde 4  
Telefonia 94 631 55 08  
**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1, Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64  
www.bizkaifisios.com

**agoa** hagin klinika  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igorme-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Ordeleku: 900  
R.P.S. 31/06


**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza  
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**Kili-Kili** Urtara denda  
**Umeen denda**  
94 673 63 51  
Agire Lehendakaria 10  
Igorre  
kilkiligorre@gmail.com

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Airezatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak  
Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorme Bizkaia

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsinoa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es





San Antonio JAIK 2016  
[www.ame.eus](http://www.ame.eus)



Sariak  
AME-ren  
eskutik



ZU bai ZU FINALA

TXU-TXU TRENA



JOKALDI



IGORREN EROSI



## FUTBOLA

**Arratia B taldea, Lurraldeko 3. mailako irabazlea**

Arratia B taldeko jokalariek.

Urtea ezin hobeto amaitu dau Arratia B futbol taldeak.

Maila igoera lortzeaz gain, Lurraldeko Hirugarren

mailako 3. taldeko irabazleak izan dira 57 puntugaz, hau da, Etxebarri Bk baino 2 puntu gehiagoz.

**Illart Gumuzio**

"Ondo hasi ginan, gero bolada positibo zein negatiboak izan genduzan eta amaiera espektakularra izan da. Ez genduzan imajinetan azkenean ligea irabaztea lortuko genduala. Egia esan, azken jardunaldira arte ez dogu ligea irabaztea lortu, horrek daukan presinoagaz. Beraz, azkenean, urtearen balorazino sano ona egiten dogu" azaldu dau Xabier Garcia taldeko entrenatzaileak. "Helburua igoera lortzea zan berez; baina taldearen beherakada, igoteko geunkan presino hori dala-eta etorri zala uste dot. Aukera hori baztertu

genduzan abenduan, liderra 12 puntu ingurura geunkalako. Ha-ta guzti be, bigarren itzuli perfektua egin dogu partidu bat galdu eta bi bardinguta" Gorka Garcia de Iturrospe taldeko kapitainak dinoskun arren, aldagelan helburu konkretuengaitik urte osoan barbarik egin ez dabela azpimarratu dabe taldekide bik. "Saillkapeneko goikaldean 4-5 talde gengozala argi ikusten zan, baina Indarraren aurkako partiduaren ostean ikusi neban igoera aukera erreala moduan. Gu laugarren edo ginoiazan eta lehenengoaren aurka jokatu behar genduzan. Ez naz oso ondo akordetan, baina irabazi ezke-

ro, puntu bat edo bira ipinten ginan. Partiduan edurra, hotza, haizea, eurria eta binako emoitza egoan, 89. minutuan Josuk gola sartu ebanera arte. Hura jai! Ni orduan konturatu nintzan: lortu ahal dogu. Partidu horri eta kontrarioak euren partidak bardindu edo galtzeari esker gorantz joateko hegoak euki doguz" dino entrenatzaileak.

Datorren urteari begira, Xabier Garcia taldea itxiko dau ala azaldu deutso begituri. "Arratia futbol taldeak asko emon deusta. Asko ikasi dot, eta persona moduan hazi egin naz. Azkenengo 4 urteak irabazten egin dodaz, azkenengo hiruretan 3 liga eta beste hainbeste igoera lortuaz. Orain, bai gorputzak eta bai buruak deskantsu edo geldialditxo bat eskatzen deuste. Horregaitik Arratia futbol taldeari, direktibeari, familiari eta danai oso eskertuta nago, baita jokalariai emon deusten urtearengaitik. Aurten pilo bat disfrutatu dot eta jokalariai ezereen gainetik lagun dodazala erakutsi deuste". Jokalariai jagokienean, Gorka Garcia de Iturrospe kapitainaren esanetan, "taldean 18-20 gara eta gehienok taldean segiduteko asmoa daukagu. Pena da Xabik taldea itxia baina bere ebatzia da eta bueltauko da behar bada. Datorren urterako ez daukagu futboleko jokatzetik eta disfrutatetik aparte beste helbururik".

Honeek izan dira Arratia B taldeko 2015-2016 denporaldiko jokalariai: Oier Barrenetxea, Jon Ugutz Maruri, Josu Agirrezabala, Imanol Ebezarrraga, Imanol Nogales, Ander Elorz, Joseba Larrea, Gorka Garcia de Iturrospe, Asier Castillo, Jokin Burgete, Eukeni Aldekoa, Andoni Vidal, Jagoba Sagarna, Mikel Atutxa, Jon Mikel Cardo, Edorta Villena, Julen Ipiña, Aimar Crespo, Unai Agorreta, Joseba Iturrioz, Julen Cabañas eta Markel Petralanda. Entrenatzailea Xabier Garcia izan da eta delegadua Jose Luis Iturrioz.

## TXIRRINDULARITZEA

**Podiuma egin dau Oskar Garrok Espainiako Txapelketan****Erredakzioa**

Maiatzaren 28 eta 29an, Estepoan (Malaga) Txirrindularitza egokitutako Espainiako Txapelketa jokatu zan. Bertan Oskar Garro Igorrekoa egon zan eta 3. egin eban 51 km.ko lasterketan, podiumera igotea lortuz. Erlojupeko 10 Km.ko lasterketan, laugarren egin eban Igorrekoa.

**Munduko Kopa**

Maiatzaren 22an Belgikan egon zan Garro Munduko Kopako lasterketan. Hamalagarren egin eban eta emoitzeagaz pozik egon ez arren, gauzak ikasteko balio izan deustala dino ziklistek.



Munduko Kopako hurrengo probak Euskal Herrian, Gasteizen, Elorrioren eta Mungian, hain zuzen be, izango dira garagarriaren 15 eta 17 bitartean. Arratiarrak lasterketa horreek "ondo egiteko gogoia eta esperantzea" daukala dino.

## MENDIA

**ZeberioXTrem V. Mendi Bizikleta Martxea hilaren 5ean****Erredakzioa**

Bagilaren 5ean izango da ZeberioXTrem V. Mendi Bizikleta Martxea. Partaideak Ermitabarritik abiatuko dira goizeko 09:00etan. Ibilbide bi dagoz aukeran: luzee- nak 43 km. ditu eta laburrenak 31 km. Igaz Igor Garcia irabazi eban martxa luzea eta Manu Quintanilla laburra.

Bagilaren 3ra arte, rockthesport.com webgunean eta Garribikes dendan emon daiteke izena. Baita probaren egunean bertan Ermitabarrin 07:30etik 08:45ak arte.



**Arratia**  
Ibilbide eta zeberioko  
**euskera**  
eta kulturearen alde

**Egin zaitez zeu be**  
Degitu-lagun

Hamabostero  
Degitu zeure etxean

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateralako produktua.  
Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkarteak  
Berrio Plaza 21. 48112 Artea

Izen-abizenak:  
Ibilbidea:  
Herria:  
Telefonia:  
E-posta:  
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

**begitu**  
mutila utzi ezazu

## MARATOI TXIKIA

# Arratiako Maratoi Txikia bagilaren 5ean

### Erredakzioa

Arratiako XXVII. Maratoi Txikia hila-  
ren 5ean izango da. Edade guztie-  
tako lasterkariak hartzean dabe par-  
te proba honetan, edade bakotxari  
egokitutako ibilbidea eginaz. Igaz,  
Iñaki Pujanak eta Onditz Iturbek  
irabazi eben nagusien proba.

Nagusiak Zeanuri eta Igorre arteko  
11 km.ak egingo dabez. Urtekera  
Zeanurin izango da 10:15ean eta  
izen emotea Igorreko kiroldegian  
08:45etik 09:15era edo Zeanurin  
bertan 09:15etik 10:00etara. 1999tik  
2003ra bitartean jaiotakoak, Artea-  
Igorre ibilbidea egingo dabe Arteatik  
10:30ean urtenda. Izen emotea  
Arteako plazan izango da 09:30etik  
10:15era arte. 2004tik 2007ra bi-  
tartean jaiotakoak, Dimatik Igorrera  
joango dira galapan. 10:00etan  
urtengo dira eta izen emotea Di-  
mako plazan izango da 09:15etik  
09:45era. Txikienak, barriz, 2008an  
edo beranduago jaiotakoak Igorreko  
eskoletan zirkuitu bat egingo dabe.  
Izena Igorreko kiroldegian emon be-  
har dabe 08:45etik 09:45era.

Aldez aurretik be emon daiteke  
izena sailkapenak.com webgunean,  
5 euro pagauta. Egunean bertan, 8  
euro pagau behar dabe nagusiak eta  
euro 2 umeak. Arratiako guraso alkar-  
teak antolatzen dabe Maratoi Txikia.

**ARRATIAKO XXXVII. Maratoi Txikia**

**2016 Ekainak 5 Junio**

Igorretik Zeanurira autobusak jarriko da 9.30etan  
ANTO. ATZALEAK: Arratia Basola eta Arratiako Institutua

<p>&gt;&gt; Nagusiak - Nagusien</p> <p>18.000€ - Reorden: 10.000€ 20.000€ (P.A.): 10.000€ (1. eta 2.) 10.000€ (2. eta 3.) - Hona da saltea: 10.000€ 100.000€ - Inaugurazioa</p> <p>Igorre (Kiroldegian) 8.45etik - 9.15era Zeanuri 10.00etik - 10.00era</p>	<p>&gt;&gt; 2008 - 2009ko Jaiotakoak</p> <p>18.000€ - Reorden: 10.000€ 20.000€ (P.A.): Hona da saltea: 10.000€ 100.000€ - Inaugurazioa</p> <p>Artea (Plaza) 9.30etik - 10.15era</p>	<p>&gt;&gt; 2004tik - 2007ko Jaiotakoak</p> <p>18.000€ - Reorden: 10.000€ 20.000€ (P.A.): Hona da saltea: 10.000€ 100.000€ - Inaugurazioa</p> <p>Dimatik (Plaza) 9.30etik - 10.15era</p>	<p>&gt;&gt; 2008tik eta geroagoak</p> <p>18.000€ - Reorden: 10.000€ 20.000€ (P.A.): Inaugurazioa 100.000€ (2. eta 3.) - Hona da saltea: 10.000€ 100.000€ - Inaugurazioa</p> <p>Igorre (Kiroldegian) 8.45etik - 9.15era Zeanuri 10.00etik - 10.00era</p>
---	---	--	---

**AURRE INSKRIPZIOAK 5 €: www.sailkapenak.com**  
**EGUNEAN BERTAN NAGUSIAK 8 € - UMEAK 2 €**

## FUTBOLA

# Gizonezkoak maila galdu dabe eta andrazkoak Kopatik kanpo

### Erredakzioa

Aurreko zenbakian Arratia B taldearen barri onak emon genduzan, taldeak kategoriaz igotea lortu ebalako, oingoan ostera barriak ez dira onak; A taldeak maila galdu dau-eta. Arratiak aukera giti eukazan maila mantenduteko, derrigor irabazi behar eban, baina Igorreko Urbieta zelaian Apurtuarteren kontra jokatutako atzen partidua 0 eta 3 galdu eban. Datorren urtean Preferente mailan jokatuko dabe arratiarrak.

### Andrazkoak Kopatik kanpo

Hilaren 21ean Arratiak, Leioako Emakumeak Bigarren mailatik bajatu barri dan taldearen kontra jokatuko eban Igorreko Urbieta zelaian Euskal Kopako lehenengo kanporaketea. Arratiak partidua bana bardindu ostean penaltietan gailendu jakon Leioari.

Hurrengo aukaria Bizkerre taldea izan zan, ligan Arratiaren ostean sailkatu dan taldea. Partidua Igorren jokatuko zan eta Arratiak eta Bizkerrek bana bardindu eben, Arratiak bardin-  
tearen gola 91. minutuan sartu eta gero. Penaltietan ostera Bizkerrek 3 eta Arratiak 2 sartu ebazan. Holan ba andrazkoak amaitu dabe denporaldia.

### Udalekuak

Bagilaren 13ra arte emon daiteke izena Arratia Futbol Taldeko udalekuetan parte hartzeako. Bertan 6 urtetik gorako neska-mutilak hartu daikie parte, astebete edo aste bitan.

Udalekuak bagilaren 27tik garagarri-  
laren 1era eta garagarriaren 4tik 8ra izango dira Igorreko Urbieta Futbol zelaian 09:30etik 14:00etara.

Parte hartzean dabezan umeak, futbolera jokatuteaz gainera beste ekintza batzuk be egingo ditue: mendiko ibilaldiak, herri kirolak, igeriketa eta abar. Arratia Futbol taldeko ekipazio osoa emongo jakie umeai lehenengo egunean. Hamaiketakoa be emongo deutsee udalekuetan.

Informazio gehiago gura izan ezker, 617 803 440 telefonora deitu edo futboludalekuak@cdarratia.com helbidera idatzi daiteke.

## AZKOREA

# Urrezko Aizkolarien Banakako txapela irabazi dau Atutxak

### Erredakzioa

Maiatzaren 28an, zapatua, jokatuko zan Urrezko Aizkolari Banakako Txapelketa Eusko Label Sari Nagusiaren finala, Azpeitiako Izarraitz pelotalekuan. 2011az geroztik beti bigarren postua lor-

tu dauan arren, zapatuan lortu eban txapelketa hau irabaztea Aitzol Atutxa aizkolari dimoztar-  
rak. Bertan lehiari aritu ziran lau aizkolariak honeek izan ziran: Aitzol Atutxa, Jon Rekondo, Xabier Orbegozo Arria V.a, eta Eneko Otaño izan ziran.

## IGERIKETEA

# Igorreko igeriketa taldeak emoitza onak Bizkaiko Eskolarteko jokoetan



### Erredakzioa

Igorreko igeriketa taldea pozik dago Bizkaiko Eskolarteko jokoetan lortutako emoitzakaz. Taldeko igerilariak Alebin kategoriako neska dira eta maiatzaren 21ean Santiurtzin jokatuko zan finalean, Jone Muñecasek irabazi, Uxue Romerok bigarren eta Laiene Arzak seigarren egin eben 100 metro lepoz modalidadean. 100 metro estiloetan Jone Muñecasek hirugarren eta Uxue Romerok zazpigarren egin eben.

Beste lasterketa bitan be hartu eben parte arratiarrak. 100 metro libreetan 13. eginda, 2005ean jaiotakoan artean seigarren, eta erreleboetan. Erreleboetako lasterketea ez jakien ondo urten eta, 12 taldeetatik 9. egin eben. Aitaturakoez gainera Ane Etxebarrik

osotu eban taldea.

Eskolarteko ligan, Igorreko taldea, zazpi jardunaldi jokatuko eta gero, 30 talderen artean, 10.a geratu da. Zortzigarren jardunaldira ez ziralda joan eta, seguru asko, posturen bat galduko ebela dinoen taldekoak.

### Euskadiko Eskolarteko jokoak

Euskadiko Eskolarteko jokoak maiatzaren 28an jokatuko ziran Bilbon eta bertan Jone Muñecas eta Uxue Romerok parte hartu eben. Romerok 13. egin eban 100 metro lepoz modalidadean eta Jone Muñecasek bosgarren 100 metro estilotan eta seigarren 200 metro estilotan. "Maila honetara helduta lehen postuak garesti dagoz" dino Juan Carlos Muñecas taldeko presidentek.

**E.P.A. Galdakao**

www.epagaldakao.com

Matrikuletako epea, bagila osoa.

Tlfn. 94 456 60 98

Helduen heziketa

E.P.A. IGORRE: Eleixaite 22. Eleizako lokaletan

**BICIS BIZI**

Arratiarron dendea

JESUS CANAS TARAVILLO

Tel. 94 630 92 20

jscanas@movistar.es

Gregorio Mendibil kalea, 12

## EUSKAL JAIA

Euskal Jaia  
Lemoan  
bagilaren 4an

## Erredakzioa

Tolosako Zesuma erromeria taldeak girotuko dau aurten Lemoako Euskal Jaia. Zesumakoak herriko festak, erromeriak eta jai ugari animetan ditue euren triki/funk, rock eta estilo ugaritako musikea joaz. Arrastian izango da hori, baina jaia eguerdi aldean hasiko da poteo musikatu eta bazkariagaz.

Poteo musikatu 13:00etan hasiko da Alkartetxetik; bazkaria Arraibin izango da 15:00etan. Zesuma taldeak 19:30ean joko dau Elizondon.

"Bass-herritar bat Madrilen" Umorea ez da faltauko Zesuma tal-



dearen emonaldian. "Englishman in New York" abestiaren bersino dibertigarria egiten dau taldeak, baseritar bat Madrilen edo, hobe esanda, Bass-herritar bat Madrilen ingurukoa.

Fandangoak, arin-arinak, kantu mexikarrak eta publikoari egokitutako abestiak be jotzen dabez Zesuma taldekoak.

## LEHIAKETEAK

## Zu bai Zu Talentu Lehiaketako finala 12an

## Erredakzioa

Bagilaren 4an 20:00etan izango da Zu bai Zu Arratiako Talentu Lehiaketako finalurrekoa eta hilaren 12an 22:00etan, finala. Umeen kategorian, lau norbanako edo talde sailkatu dira finalurrerako; gazteen kategorian hiru eta nagusienean lau.

Zu bai Zu Talentu Lehiaketea izateaz gainera, ikuskizuna da, show-a. "Publikoarentzat gagoz, publikoak sentimentu desbardinak sentidu dagiazan; poza, haserrea, negarra, barregurea..." dino Ismael Pereira aurkezleak. Horregaitik, lehiaketearen izakera bikotx honegaitik, epaimahaikideak ezin dabez emonaldiak baloratu beste lehiaketetan legez. Epaimahaikideak espezializata dagoz, antzerkian, musikan, euskeran, estetikan eta abar.



Finala hilaren 12an izango da.

Finalurreko galan artista konbidauak egongo dira eta euren imitazioa egingo dau aurkezleak.

## Finalistak

Honeek dira finalera pasetako le-

hiatuko diranak:

## Umeak

Magali (tela akrobaziak).  
Aimar Bereziartua (tronpea).  
Izaro, Paule eta Nikole (lurreko akrobaziak).  
Elsa Trueba (kantua).

## Gazteak

Unax Zabala (kantua).  
Jone (Clown).  
June Muñecas eta June Iruarrizaga (tela akrobaziak).

## Nagusiak

Illart, Zoro, Iraitz eta Irati (kantua).  
Esti eta Olatz (kantua).  
Arratiakada (musikea).  
Patikao (jantzea).  
Jorge eta Deiene (jantzea).

## MUSIKEA

## Zeinke taldea Karabie Gaztetxean

## Erredakzioa

Bagilaren 4an, 23:00etan, Zeinke taldeak zuzenean aurkeztuko dau *Sormena*, *kemena* bere azken diskoa Lemoako Karabie Gaztetxean. Talde konbidau moduan,

Galdakaoko Otuz taldeak be joko dau.

Zeinke taldearen bigarren estudioko lana da *Sormena*, *kemena* eta emoitzeagaz sano pozik geratu dirala dinoe Zeinkekoak euren Facebookean.



## LEHIAKETEAK

## Oscar Azkonak irabazi dau Lemoako V. Narrazino Lehiaketea

## Erredakzioa

Oskar Azkona Garciaren "Aitortza Gutuna" narrazioa izan da aurtengo Narrazino Lehiaketako irabazlea. Sari bi jaso ditu Eva Perez-Pons Andradek "Katarsia

zu" lanagaitik: bigarren saria eta Lemoako lehenengo. Hirugarren saria, barriz, Imanol Marcaida Gorostia garentzat izan da "Mirari iluna" narrazionarengaitik. Saritutako hiru narrazioak Lemoako Udalaren webgunean dagoz irakurgai.

## Oskar Azkona

Oskar Azkona Bilbon jaio zan orain dala 44 urte, gaur egun Laudion bizi da, eta Eusko Jauraritzan egiten dau lan. Bere zaletasunak, mendia, Athleticen partiduak eta literatura dira. "Betidanik izan dot lehiduteko ohitura, leidu ahala istorioak kontetako moduez eta testuen egiturez ikasten dala uste dot, eta hortik etorriko jatan idazten ahalegintzeko gogo" dino.

## "Aitortza Gutuna" goi-mendian girotutako narrazioagaz irabazi dozu lehiaketea. Zelan sortu zan idea?

Orain dala pare bat urte, udako oportetan mendia eta hondartza tartekatu nebazan eta ondoren idazteari ekin neutsan, oportaldian zehar bizi, ikusi, entzun eta sumatutako gertaera batzuetatik abiatuta. Mendian ibiltea gustetan jata, eta ipuin honek mendia eta literatura zeozelan buztartzeko aukerea emon deusta.

Lemoako sariaren aurretik hainbat sari jaso dozuz. "Uxiaren tesia" eta "Antxeta izan nintzen" narrazioak,

## esate baterako. Zeintzuk dira zure idazteko ohiturak?

Ez dot uste asko idazten dodanik, noizbehinka jartzen naz ordenagailuaren aurrean. Orain dala sei bat urte ausartu nintzan lehenengoz zeozter idazten, lehiaketa baten aurkezteko asmoz, eta egia da sariak irabazi dodazanez honek konfiantza eta gehiago idazteko gogoia emon deustala.

Boladaka idazten dot, eta nik bizitako jazoerak edo nonok kontautakoak hartzean dodaz abiapuntu moduan, hortik fikzioa sortzeako eta gauzak asmatzeko. Normalean, ipuinaren hazurdura edo idea nagusiak idazten dodaz hasikeran, eta gero testua orrazten dot lehiaketa bateri begira.


## Irakurle moduan zeintzuk dira gehien gustetan jatzuzan idazleak?

Gustetan jata apur bat danerik irakurtea, idazle eta genero desbardinak, eleberri, ipuin eta olerkiak, baina ia dana euskeraz leidunten dot. Baten bat aitatzekotan, etxekoan artean Joseba Sarrionandia eta Aingeru Epaltza dodaz gogoko, eta

atzerikoen artean asko gustetan jata Charles Bukowski, autore desbardina dala iruditzen jata, eta baditu hainbat liburu euskeratuta.

## Literatura eta sorkuntza aldetik, zeintzuk dira zure proiektuak?

Orain arte moduan jarraitutea, astia eta gogoia daukadanean zerbait prestatu eta lehiaketetan aurkeztu, neure burua behartu barik. Une honetan buruan jabiltan idea, zortzimilakoren baten dabilan mendizale talde baten istorioa da, istripu edo ezbeharren bat jasango leukena, zeozter eregi gura neuke horretaz. Irakurri barri dot Juanra Madariagak idatzitako *Espedizioa* liburua, eta mendiaz lotutako testu ederrak sortu daitekezala erakutsi deusta.



publicidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

## BERTSOLARITZEA

# Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udagoieneko Faserako sailkatu dira Igor Menika eta Iñaki Iturriotz

### Erredakzioa

Arantzazuko Igor Menikak, maiatzaren 22an Getxon jokatu zuen Udabarriko Faseko azken kanporaketan parte hartu eban. Arratiarrak hirugarren egin eban saio honetan 173,5 puntu lortuz. Puntu horreekaz, hamahirugarren jarri zuen sailkapen orokorrean, Udagoieneko Faserako pasea lortuz. Getxoko saioa Uribe-Butroeko Malen Amenabarrek irabazi eban 183 puntu lortuta.

Hurrengo fasera 25 bertsolari sailkatu dira. Arratiatik Igor Menika (173,5 puntu) eta Iñaki Iturriotz (172 puntu) sailkatu dira, hamahiru eta hamalagarren eginda hurrengo hurrengo. Imanol Uribe da sailkapeneko buru 189 puntugaz.

Udagoien Fasean 30 bertsolari neurtuko dira, fase honetan sailkatutako 25ak eta inoz finalista izan diren beste bost. 2014an finalista izan ziranak finalurrekoetan sar-



Getxoko saioko bertsolariak.

tuko dira Txapelketara.

### Eskolartekoan Arratia Institutuko ikasle bik saria

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udabarriko Fasearen aurretik, Bizkaiko Eskolarteko Txapelketea

jokatu zuen Getxon. Lehenengotik, bertso idatzien finala eta ondoren bat-batekoa. Idatzizkoa, DBH2ko mailan, Arratia Institutuko Maddi Zabalo zuberioztarrak irabazi eban eta Maria Atutxa igorretarrak hirugarren egin eban.

## INSTITUTUKO JAIA

# Arratia Institutuko 2016ko uzta

### Erredakzioa

Maiatzaren 26an ospatu zuen 2016ko Arratia Institutuko ikasleen Agur Jaia. Lasarte Aretoan egin zuen bigarren urtez aurten Batxilergo 2. maila amaitu dabena ikasleen ekimen hau. Protagonistak, ikasleak eurak izan ziran, besteak beste bertsoak, abestiak, berbaldia eta jantzan be egin ebelako. Hektor Rodriguez zuzendariak egin eban berbaldia ikastetxearen izenean. Horrez gain irakasle eta ikasle ohiak be hartu eban parte. Atal honetan sorpresatxo izan zuen ze Alex Txikon ikasle ohiak,

momentu horretan Katalunian egoala eta, bideoan grabatutako mezua bialdu eban.

Alex Txikon Arratia BHlko ikasle ohi da, eta ezaguna denez, Nanga Parbat zortzi mila metroko mendia neguko lehen igoeria burutu eban beste hiru mendizale gaz batera. Ez dau historian lehenago inork erronka hori burutu. Omenalditxo egin gura izan jako berari be konbite xume honen bidez. Ekitaldia amaitzeko ikasle taldearen argazkia egin zuen. "Beti be alkartasuna, kideasuna, izpiritu kritikoa eta euskerarenganako konpromisoaren argazkia" dinoe.



## DUNBA

# Ongi etorri errefuxiatuak

### Lemoako JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko IPIko DBH3ko ikasleak

Guk, DBH3ko Lemoako IPI ikasleok azoka bat antolatzea ebatzi genduan errefujiaduak laguntzea emoteko. Ahal izan genduan material guztia batu eta Lemoako IPIin saldu egin genduan gauza horreek. Hainbat personak materialak ekarri ebezan saltzeako eta amaieran 1000€ baino gehiago bildu genduan. Bildutako diru guztia errefujiaduengana joango da. Maiatzaren 10ean izan zuen azokea.

Azokea aurrera eroan ahal izateko, ikasle batzuen parte-hartzeagaz, Lemoan eta Bedian, hainbat horma-irudi eta pankarta ipini genduan. Kartel horreetan, lekua, ordua eta zelango postu eta tailerrak egongo ziran agertutetan.

Horrez gainera, beste modu batera be informazioa transmitidu ahal genduala bururatu jakun, beraz kotxe bat hartu eta Lemoa guztian, bozgorailu batzuekaz ibili ginan. Whatsapparen bidez be zabaldu genduan informazioa.

Aurrekanpaina egiteko hainbat material erabili genduan, adi-

bidez, kartoizko kutxak apaindu genduzan eta gero Lemoako taberna batzuetan ipini genduzan. Atari bakotxean be propaganda papalak ipini genduzan.

Hainbat ekintza edo txoko antolatu genduzan. Lehen txokoan, Harrotxugaz Photocalla izan genduan. Harrotxu Lemoako euskal maskotea da, Harrotxu planetatik etorria. Postu horretan hiru persona egon ziran: Harrotxu bera, argazkilaria eta hirugarren bat. Honek jentearen helbide elektronikoa apuntatu ebezan argazkiak bialduteko. Postu honetan ez zuen dirurik eskatu; borondatea baino ez.

Bigarren txokoa, pintxoena zuen, danetariko pintxoak egon ziran, danak euro baten. Txokoan, pernil bokatak, 3 pastel mota desbardin, bizkotxoa eta gailetak egozan. Hasieran, jentea ez zuen hurreratzeko baina minutu batzuetara dana salduta egoan. Pintxoak saltzean genduzanean, erosleak Alex Txikonen posterra bananduten geuntsen. Pintxoaren txokoan be, Alex Txikonek sinatutako kamisetak zozketatu zuen.

Hirugarren txokoa, arpegia margotzeko izan zuen. Bertara



Itziar, azokearen antolatzaile nagusia.

umeak ilusino handiz hurbildu ziran. Txoko honetan ez zuen dirurik eskatu. Umeak arpegia irudi desbardinez margotzeko aukerea emon geuntsen. Adibidez pailazo, spiderman, harrotxu, tximelata...

Azokan, ume txikiak entreteniduteko, motorretan ibilteko tailer bat egon zuen eta arrakasta handia izan eban. Hasieran zirkuitu bat egin genduan konoak erabiliz, baina ume asko hurreratzeko zanez, zirkuitua kendu genduan eta umeak eremu itxi baten olgetan hasi ziran motor gainean.

Ez eban huts egin bigarren eskuko azokeak. Bertan, batutako materiala saldu zuen prezio egokian: jostailuak, liburuak, erropea... Herriko jentea errefujiaduen alde egoan eta pentsau

genduana baino diru gehiago eskeini euskuen.

Era berean, aurreko egunetan ikasle batzuk klasean pankarta bat egin genduan. Bertan kanpainako leloa agertzen zuen: "Sentitu, pentsatu, ekin denok errefuxiatuekin". Azokaren egunetan pankarta atera genduan. Lehenengotan ez zuen umerik hurbildu baina apurka lotsea galtzean hasi ziran eta gure txokoa umez bete zuen. Pankartearen letrak koloreztatu ondoren umeak ahurrak tenperan busti eta pankartan ipini ebezan. Egia esan, ederto pasau genduan ume hareekaz.

Azkenik, marrazketa tailerra. Bertan umeak Lemoan euskerea bultzatzen dauan personajea, Harrotxu izenekoa, marraztu eban. Marrazketa horreek modu bitara bideratu genduzan: 8 urtetik aurrerakoak pintzelez marrazteko aukerea izan eban eta 8 urtetik beherakoak margo edo errotilagailuakaz.

Azokea, orokorrean, espero genduana baino hobeto atera zuen eta jente asko etorri zuen azokara. Ordutegi aiposean izan zuen, umeak eskolatik urtetan ziranen hasi zalako eta ordu horretan gurasoak seme-alaben zain egoten dira. Postuak oso ondo antolatuta egon ziran, nahiz eta momentu batzuetan postu batzuk kontrolik ez euki. Azokak arrakasta izugarria izan eban eta pilo bat diru atera




genduan. Hurrengo baterako badakigu non egin doguzan akatsak.

Bukatzeke, eskerrak emon gura deutseguz, alde batetik gure irakasleak aurrekanpainan eta azokea antolatzen lagundu deuskuelako, eta beste aldetik Itziarri, azokearen antolatzaileari, azokan parte hartzean itxi deuskulako. Azkenik eskertzeko da herritarrek izan dabena jarkeareta eta parte hartzea azokearen inguruan. Lortutako diru guztiak, 1.000 eurotik gora eta kutxakada bat janarik, errefujiaduak zorian-tsu egingo ditu. Benetan oso gustura sentidu gara.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Bapo. Odol mota guztien hartzaile.  
2.- Umeen berbetan, mosua. Kide.  
3.- Musika nota. Narra. 4.- Ezetz esan. Bokala. 5.- Garandu. 6.- Bokala. Espiritua. 7.- Indaba. Euskera zaharrearren, txakur. 8.- Kretako mendia. Gaixo.  
9.- Litioa. Ahostun.

### GOITIK BEHERA

1.- Kokomarro. Trebe. 2.- Beharbada. Kontuz, erne. 3.- Daborduko. Gurasoen ume emea. 4.- Oxigenoa. Urten. Bokala. 5.- Bildurti. Ezetza. 6.- Berba-alkarketan, adar. Gogaldi. 7.- Txori baltza. Azkar.



Topau zazpi andra mitologikoren izenak.

B	A	L	S	T	U	N	E	G	O
I	S	E	R	O	G	B	I	A	J
Z	O	R	G	O	M	E	I	N	U
E	B	A	R	O	L	S	T	I	N
R	O	P	I	L	B	A	S	K	A
G	U	B	A	T	E	N	M	Z	K
O	X	T	A	M	A	D	E	I	R
N	A	I	K	A	N	E	R	A	A
A	K	R	E	L	U	R	E	G	I
D	U	A	L	B	U	E	F	S	H
U	Z	M	I	L	A	K	O	A	R
N	I	S	A	N	G	R	U	D	E
G	E	M	A	R	G	I	P	E	Z
O	A	I	D	I	K	O	R	A	B
R	U	A	N	D	A	N	I	R	E

# AKMIKO

Ka i l o

**Indarkeriaren nor da nor?**

biktima probokatzaila da?	polizia da?	profil psikopatikoa du eta ingurukoak hondatzen ditu bere probetxurako?	gizonak gorroto ditu?	aita aldentua eta ama gain-babeslea dauzka?
seme-alabak jipoitzen ditu?	adineko gurasoak gaizki tratatzen ditu?	emakumeak gorroto ditu?	tratu txarrak jaso zituelako orain besteak zigortzen ditu?	asteburuetan borroka bila irteten da?
langileak zapaltzen dituen nagusia da?	norbera mintzen du?	drogen menpekotasuna dauka?	animaliak jipoitzen ditu?	
matxista erradikala da?				

**sew**  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tlfnoa: 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra egin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 48.140 Igorre Rober ☎ 630 743 543  
Manuel ☎ 661 848 793

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU \* ILEAPANDEGIA SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bajo • 48140 IGORRE (Bizkaia)  
☎ 94 631 92 00

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEH ERDARAZ  
Raimonak: A1, A, BTR, B  
Lehendakari Agirre 31  
Tlfnoa: 94 631 91 52  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garante@ovokahel.net

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAU: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAU: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3, 3a ☎ 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

**Dia % PEDRO AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**Pinturas Anatia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta eskolaraz bain ezinez  
Garbe, 10 - 48140 Igoire (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 63  
e-posta: unda@ovokahel.net

EVA PEREZ-PONS ANDRADE

## "Barren politikoa daukiezan liburuak dodaz gustuko"

Eva Perez-Ponsek sari bi jaso dauz V. Lemoako Narrazino Lehiaketan: bigarren saria eta Lemoako egile baten lanik onenari saria. Arraibi auzokoa da eta hemeretzi urte ditu. Arraibikoak, industria elektronika eta automatikako ingeneritzako ikaslea da EHU, Klitto! blog feministan kolaborazioak egiten ditu eta argazkigintza da bere zaletasunetako bat. Literatura eta Lemoa berabagai hartuta, "Katarsia zu" narrazioaren egileak bere eretxiak eta kezak konpartidu dauz BEGITUgaz.

### Erredakzioa

#### Zelangoa da Eva Perez-Pons Andrade?

Ikaragarri lotsatia naz, ez naz bape berbatia, baina aktiboa eta baikorra, bai. Txantxak egitea, lasaitasuna, irakurtea, lagunakaz ibiltea eta parrandan urtetea... asko gustetan jata.

#### Lemoako aurtengo Narrazino Lehiaketan sari bi jaso dozuz "Katarsia zu" lanagaitik. Zelan jaso zenuen barria?

Ba, ez dot aurretik literatura saririk jaso eta egia esan sorpresa bikotxa izan da espero ez nebalako. Gainera Estik (Esti Carracedo, Lemoako Kultura Teknikaria) irabazi nebala abisetako mezua bialdu eustanean unibersidadeko lan bat egiten nabilen, nahiko estresauta eta eguna poztu eustan.

#### Zergaitik aurkeztu zinan lehiaketa honetara? Lehenengo aldian izan da ala aurreko edizioetan be hartu dozu parte?

#### Igaz izan neban lehenengo aldiz lehiaketaren barri ata aurkeztu nintzan. Irakurtea sano gogoko dot eta gura neban probau ea irakurlearen lekuaz gainera idazlearen lekua hartzeako ausardia edo gaitasuna neukan. Igazko narrazioa egitea asko kostau jatan nire burutik papelera istorio bat botaten neban lehen aldian zalako, aurten askoz be eroangarriago egin jata.

**Narrazioa lehenetik eginda zeunkan ala lehiaketarako beren-beregi sortutakoa da?** Udan narrazio txiki bat hasi neban baina erdizka itxi neban. Lehiaketara aurkeztu dodana narrazio horren jarraipena izan daitekean zati bat da, idea eta testuaren eritmoa buruan neukazan baina egituratu barik eta aurkezteko epea urten zanean berehala idatzi neban. Azkenean, landu dodazan gaiak erabat errealak dira eta literaturaz baliatu

#### Argazkigintza be gustuko dozu, ezta? Zeintzuk dira hartzean dozuzan gaiak?

Hezkuntzatik literatura sustatzeko dauan metodologia guztiz txarra dala uste dot. Alde batetik, ikasten diran egile gehienak gizonezkoak diralako eta horrek asko baldintzatzen dau etorkizunerako norbanakoaren hautua, baina bueno, hori literaturan, politikan, filosofian, zientzian eta bizitzako arlo guztietan gertatzen da, eta ez da izango andrari egon ez dalako. Eta bestetik, liburuak norberak aukeratu behar dauzala uste dot, irakasleak aukeratzen dauan liburu guztiz aspergarria irakurtera behartuta sentiduten bazara, literatureagazko daukazu interesa pixkanaka txikitzen joango da. Nik adibidez ez neukazan bape gogoko misterio liburuak eta agintzen euskuezan gehienak holakoak ziran.

naz gizarteari kritika bat egiteko.

#### Ze leku dauka literatureak zeure bizitzan? Ze literatura mota gustetan jatzu? Zeintzuk dira gehien gustetan jatzuzan egileak?

Denpora asko emoten dot irakurten batez be teoria feministea, Federici, Wittig eta Butler bereziki gogoko dodaz, gai diferenteak landuten dabezalako eta hausnartu arazoten deustelako. Eta hori da liburu on batek egin behar dauana. Teoriaz gainera, barren politikoa daukiezan liburuak gustuko dodaz, Danele Sarrigarteren *Erraiak* edo Joan Mari Irigoien *Ipuin batean bezala* adibidez, asko gustau jatazan irakurri nebazanean. Virginia Woolfen *Orlando* eta Uxue Apaolazaren *Bueltak* daukadaz pendiente uda honetarako.

#### Zelan sortu jatzun literaturaren "harra"? Irakasle batek biztu eban zaletasun hori? Etxeko giroak? Bakarrik egindako aurkikuntza bat izan da?

Beti izan dot gustuko irakurtea, baina 15 edo 16 urteaz dana zalantzan ipinten hasi nintzan eta jakinminak literaturara eroan nintzan. Zeozelan, normatibidadetik iges egiteko euskarri izan dodaz liburuak, bestelako gizarte eredu bat eregitea posible dogula sinesteko tresna izan dira.

**Klitto! Euskerazko blog feministan be kolaborazioak egiten dozuz. Zelan ikusten dozu Lemoako egoera feminismoaren aldetik?** Klitto!n kolaborazioak egiteko aukerea emon eusten eta oso gustura hartu neban. Gizarte heteropatriarkal baten bizi garan neurrian, zapalkuntzak egunero pairatzen doguz leku guztietan, bai kalean, bai militantzian, bai etxean eta behin betaurerako moreak jartzen dozuzanean, egoera horreek detektatu eta konpontzen saiatzea besterik ez jatzu geratzen. Eta honek bizitza zeharo aldatzen deustu. Lemoan ez dago talde feministarik eta herriarentzat taldea oso onuragarria izango litzateke beharrezkoa dan ikuspuntu feminista hori garatu, sustatu eta indarkeria egoerak ekiditeko, eta behar danean erantzun feminista kolektiboa emoteko indar gehiago

#### Bai, argazkiak momentuak eta sentimentuak heldu arazoten deuskuez eta sano gustuko dodaz begiradan, gorputzan eta naturan zentretan diran horreek. Naturak ixten deuskuzan gauza txikiak harrapetan saiatzen naz benetan daukien garrantzia erakusteko.



Bai, argazkiak momentuak eta sentimentuak heldu arazoten deuskuez eta sano gustuko dodaz begiradan, gorputzan eta naturan zentretan diran horreek. Naturak ixten deuskuzan gauza txikiak harrapetan saiatzen naz benetan daukien garrantzia erakusteko.

#### Eukiteko. Gainera, andra desbardinaren arteko loturak indartzeko eta talde kontzientzia hartzeako aukera parebakoa izango litzateke. Oin Arratiako Jabekuntza Eskolea martxan dala, akaso talderen bat sortuko da!

**Gazte izateko herri ona da Lemoa? Zeintzuk dira daukazuzan aukerak? Zer egiten dozue zapatu-domeketan Lemoako gazteok?** Egia esan, ez naz Lemoatik asko ibiltzen Zornotzan ikasi nebalako eta kuadrilea hangoa dalako, baina txitean-pitean ahizteagaz edo pare bat lagunegaz Lemoatik ibiltea gustuko dot, lasai-lasai kafe edo kainaren bat hartu, buelta bat emon... Gainera udaletik berbaldi sano interesgarriak antolatuten dabez, baten bat aitatzearen, bereziki gustau jatazan urrietan etxebizitzaren inguruan antolatu ebezan jardunaldiak. Eta Lemoako jaiak dagozan jairik onenak dirala uste dot! **Zeintzuk dira zure proiektuak?** Ikasketak amaitu ostean denporalditxo batez Bartzelonara joan gurako neuke, gune autogestionatuen burujabetza energetikoan jardun, eta jakintza eta zaintza modu kolektiboan partekatze.



www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net  
Zabalik 07:00 - 19:00

**Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua**

**BOLUNBURU POLIGONOA**  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)














· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.  
· Garraio zerbitzua.

**KÄRCHER**  
Banatzaile ofiziala